

Kultura Digitala Multimediatik

Kulturaren Euskal Planaren Kultura Digitala eta
Multimediaren taldearen bileretan oinarritutako
txostena

2003ko Urria

KULTURA DIGITALA MULTIMEDIATIK, KULTUR INDUSTRIETATIK ETA ONDARETIK	3
AMIA ANALISIA	5
INDARRAK	5
ABAGUNEAK	8
AHULEZIAK	11
MEHATXUAK	15
CD+MMEN JARDUERA-ILDOAK	18
JARDUERA-ILDO NAGUSI BAINA OROKORRAK	26

KULTURA DIGITALA multimediatik, kultur industrietatik eta ondaretik

Digitalizazioak ondarearen, artearen edo kultur industrien forma oro ukitzen du, nahiz eta eragin sakonagoa duen beste jarduera batzuetan, esaterako liburutegietan, artxiboetan, ikus-entzunezkoetan, argitalpenetan, multimedian... Digitala bitarteko berri bat da, eta abantaila handiak eskaintzen ditu kultur ondasunak babesteko eta, bereziki, haiek era unibertsalean ezagutarazteko. Digitala, halaber, sorkuntzaren eta adierazpen artistikoen eremu berri bat da, klasikoetatik bestelakoa.

Baina formatu horretako kultur ondasunetara iristeko eta haiekin gozatzeko langa berri bat ere bada digitala, baldin eta erakunde publikoek ez badituzte martxan ipintzen komunikazioko eta teknologietara ohitzeko nahiz iristeko azpiegitura indartsu eta erabilerrazak, eta ez bada egiten kultur kalitatearen eta giroaren aldeko ahalegin bat.

Guztiarekin ere, ez dira sarea edo euskarria aro digitaleko giltza, baizik eta edukiak, eta edukiak bi faktoreren mendean daude nagusiki. Hona bi faktore horiek: a) herri batek lehendik zeukan kultur ekoizpenaren egitura, sormenaren, ekoizpenaren eta gizarte-erabileraren arloetan; b) herri horrek nolako gogoia duen erronka berriei erantzuteko, bereziki funtsezkoa baita hori kultura minorizatuentzat.

Egia esateko, sareak kulturen balio-katearen oinarriak berregituratzen ari dira, kontraesan eta birmoldaketa berriekin. Talde handiek garrantzi handiagoa hartu dute. Talde horiek eskubide-kopuru itzelen jabe dira, eta sistema pribatu eta itxien hedatzea sustatzen dute. Ez da ari kultura berri bat sortzen, ezta gutxiagorik ere. Aitzitik, badirudi prozesu bikoitz bat dugula aurrean: alde batetik, kultur ekoizpenaren komertzializazioaren eta transnacionalizazioaren areagotzea, lengoaien eta euskarrien nahasketa adierazkorra intentsiboki erabiltzen dela; bestetik, eskaintza kultural andana izugarriak ari dira azaltzen toki guztietatik, beste joeraren kontrapisutzat eta zuzengarriztat. Kultura globalak eraginak jasaten ditu, eta modelo franko sortzen dira hortik, eta, aldi berean, kultura lokala ezin daiteke izan "glokala" baizik, hots, planetako eskaintza handien eraginek eta gustuek ukitua. Sarean dagoen eta dabilen kultura guztia gatazka iraunkor horren emaitza da batez ere, eta gatazka horrek, ekoizteko ahalmena ez ezik, sormena ere eskatzen du, hau da, gizakiaren sormen-baliabideen alde apustu egitea.

Euskaldunak materialaren eta solidoaren ekonomian nabarmendu gara orain arte, burdinaren eta makinaren, antolaketaren eta lanbidearen, ahaleginaren eta ekoizpen-eraginkortasunaren ekonomian. Orain, beste maila batera igaro behar dugu –eta oraindik ez dakigu nahikoa–, hots, ez-materialaren ekonomiara igaro behar dugu (ukiezinaren eta jakintzen, balio erantsien eta zerbitzuen, eskubideen eta aktibo ez-materialen, patenteen eta teknologien, ezagutzen eta marken, are laburraren eta galkorraren ekonomiara); orain, adierazpen-formak eta *on line* nahiz *off line* baliabideak indartzen eta gurutzatzen ikasi behar dugu, edozein arlotan, kulturarenean barne.

EAEn, erakunde publiko nagusiek ez diete ekin oraindik eduki digitalei, eta are gutxiago kultur eduki digitalei. Ahalegin handia egin da teknologian, I+Gean eta enpresetako nahiz etxeko ekipamenduetan, baina oraindik ez zaio erantzun modu estrategikoan aurrean dugun erronka handiari. Zein da erronka hori? Euskaldunen industria-espezializazio tradizionaletik aro digitaleko espezializazio berrietara igarotzea. Arlo horretan, kultur eduki digitalak dira ahaztuenak.

Tamalez, Kultura ez zen hartu aldagai estrategikotzat “Euskadi Informazioaren Gizartean Planean”. “Euskadi sarean” epigrafean, euskararen baliabideei, teknologiei eta edukiei eskainitako ekintza zehatzak dira salbuespena. “Euskadi Informazioaren Gizartean Plana” (EIGP) teknologiaren eta informatikaren alderdietara zuzendu zen nagusiki, eta kultur edukietan murgildurik ez zeuden eduki batzuetara, nahiz eta eduki horiek funtsezkoak diren kultur klonazioa saihesteko eta epe ertainean merkatuak sortzeko.

Euskal politika zientifikoak ez die erantzun kulturaren arloko I+G+B premia berriei, baina bai beste arlo batzuetakoei. Eta, aldi berean, kultur politikak berak ere ez du lagundu bide berriak jartzen, herritarrak kultur edukietara eta kulturaren parte hartzera hel daitezkeen sarearen nahiz tresna teknologikoen bitartez. Ondorioa garbia da, eta bi txostenek jasotzen dute: kultur politika orokorra ez ezik, beste politika tarteko edo misto bat ere behar da, politika zientifikoaren eta politika kulturalaren artekoa. Politika zientifiko-teknologiko kulturala behar da EAEn.

Aurrez eskatutako *Kultura Digitala* txostenak proposatutako alderdia landu zuen batik bat, hots, hauxe: “Instrumentu eta tresna informatikoak euskararen hizkuntz arlora aplikaturik”. Banakoen ekarpenetarako eta eztabaidarako gelditu zen ebakidura horizontala, zeinak azpisistema kultural gehienetan eragiten baitu, eta eztabaidarako gelditu zen, halaber, adierazpen instituzional eta artistiko espezifikoki digitalen agerpena.

Kultura Digitala da lantaldeetan sartutako zeharkako gai-sorta bakarra; izan ere, esperientziak metatzeko eta konparatzeko zegoen premiagatik, gai-sorta horrek izaera berria du, eta sekulako eragina kulturaren azpisistema guztietan. Zeharkako beste eremu batzuetan (euskara, hezkuntza, komunikabideak...) badugu jadanik nahikoa ezagutza eta ibilbide, eta erraza da ondorioak ateratzea txostenen beren nahiz ondorengo azterketen irakurketa gurutzatutik.

Izan ere, gai-sorta hori generikoa da, eta adierazpen-forma ugari barne hartzen ditu (idatzizkoak, audiokoak, grafikoak, ikusizkoak, multimediakoak...), eta horietako bat, multimedia, beste lantalde batean landu da espezifikoki.

Aldiz, MM espezifikoki lantzea gaira hurbiltzeko beste era bat izan zen, *kultura digitalaren* esperientzietako batetik –eta bereziki multimediatik– problematika zehatzak atzemateko. Gutxiengo batera heltzen da multimedia, testuen, soinuen eta ikus-entzunezkoen ugaritasunaren aldean, baina kultura digitalaren adierazpen jatorrenetako bat da halere.

Digitalizazio-estandarrak bateratzea, multimediarentzako teknologia edukitzeko; ondarearen gaineko balio erantsia sortzeko multimedia-ekintza; eleaniztasunaren inguruko multimedia-garapena eta hori erraztuko duten “egile-tresnak” sortzearen

aldeko apustua dira, besteak beste, MMren agenteek eskaintzen dituzten lan-ildoetako batzuk.

Hasiberria denez, merkatuak egun ezin du dinamizatu multimedia-kultura. Horrek ekimen publikoa eskatzen du, batetik –enkarguzko lanak hezkuntzan eta hizkuntz politikan, sortze-lanak, ondarearen multimedia-birsortzea...–, eta merkatua sortzeko ekintza-andana, bestetik. Erakunde publikoek ez badute aitzindari jokatzeko horretan, ez da esperientziarik izango merkatua dinamizatzen denerako. Baina ez dute balio sustapen-politika guztiek ere, zeren ez baita komeni sortzea industria irreal, dirulaguntzetan soilik oinarritutako eta arrakasta izateko aukera gutxi duen bat ere.

Lantalde bien emaitza desberdina izan da. Kideen kezka desberdinak direla eta, “Kultura Digitala” taldea orain dagoen kulturaren (artxiboak, liburutegiak, sareak...) digitalizazio orokorraz arduratu da gehiago, eta gizartea horietara iristean, eta “Multimedia” taldea, aldiz, multimedia-ekoizpenaz eta haren arazoez arduratu da batez ere (esparru digital orokorra maiz aipatu du).

Ikusirik bi Taldeen emaitzak, ikusirik logika bategarri eta partekatuak zituztela hein handi batean, bi lanak (AMIA eta Ildoak) txosten bakar eta logika komuna duen batean ipintzera ausartu gara, gogoan izaki beti Multimedia kultura digitalaren produktu espezifikoa eta berria dela, modu berezian tratatu beharrekoa. Horregatik, Multimediari dagokion berezitasunen bat denean, nabarmendu egiten da txostenean. Ohartu gara bi lanak batzeak bi hauek eskaintzen dituela: ikuspegi global eta partikular bat, eta askoz agiri aberatsago eta osoagoa.

Industria kulturaletan (liburuak, diskoak eta ikus-entzunezkoak) Informazio eta Komunikazio Teknologia Berriei (IKTB) eginiko erreferentzien hustuketa gehitzen baldin badiogu horri guztiari, panorama oraindik osoagoa da.

AMIA ANALISIA

INDARRAK

Teknologia eta I+G

- Liburuaren kasuan, hasiera batean Internetek aukera ematen du edo publizitatea egiten du off line edizioa saltzeko. On line edizioak kostuak zeharo gutxitzen lagunduko luke, baina ez dauzka konponduta ez itzulkinak, ez egilearen eskubideak, ez irakurlearen erabilerak; egiazko *e-book* edo liburu elektronikoa eramangarria beranduago iritsiko da, haren prezioagatik eta ezaugarriengatik.

Sorkuntza

- Literaturan: tresna berriak daude aukeran idazketarako, eta kontatzeko (formula interaktiboak) eta komunikatzeko forma berriak daude, edozein publikorentzat.
- Trebakuntza teknologiko tradizionala eta maila kulturala oinarri onak dira euskaldunak kultura digitalean espezializa daitezen.
- Teknologia berrietara iristeak balio-katearen faseak (sorkuntza, ekoizpena, banaketa eta kontsumoa) gutxitzen laguntzen dio sortzaileari. Trebatzeko aukerak ditu, eta, zenbaitetan, biak bateratu ditzake, sortze- eta ekoizte-faseak, edo ekoizte-eta hedatze-faseak.
- Europak Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien (IKTB) alde egin du apustu alderdi askotan: gizarte-hedapena, sarbide erabilerraza, sistema irekietan ikastea – lankidetzat-talde birtualak eratuta– eta europar ondareei balioa ematea. Bada zenbait ekintza arlo horretan (hezkuntza eta ondarea) Espainiako esparruan ere ([Soto, lehen Info XXI](#)).
- Eduki kultural eta artistikoko lehengai-kopuru handiak edukitzea, artearen munduko profesionalek eta kultur ondareak sorturik.
- Animazioaren azpisektorea (zeinak egokitzeko gaitasuna erakutsi baitu) giltzarri da ikus-entzunezko industria tradizionala eta teknologia digital berriena elkarrekin lotzeko.
- Euskarak espezializatzeko aukera ematen du, bai produktu espezifikoean (merkatu gatibua), bai hizkuntzaren industrietan eta eleaniztasunean (ekarpenak egin teknologia erabilerrarzen mailan, Hizkuntza Gutxituen Behatokiari...). Jakina, ez da ahaztu behar gauza bat: sarean edukien arloko zerbait komunikatzeko ingelesa, gaztelania eta frantsesa erabiliko dira nagusiki, euskararekin batera. Arrazoi horregatik beragatik, UOCk (Universitat Oberta de Catalunya) katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzen ditu orain bere tituluak, bere eskaintza sendoa izan dadin ekonomikoki.

Produkzioa

- Ahalegin handiak egiten ari dira agiri historikoak digitalizatzeko. (Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegi Digitalaren kasua da hori. Jadanik digitalizaturik duen gordailu historikoa –1.200 titulu baino gehiago– oso garrantzitsua da. Egun, ikertzaileentzat, artxibozaintzat eta liburuzaintzat da ia soilik).
- Une honetan, eduki ugari daude sarean, zabaldu eta ezagutarazi beharrekoak: “Klasikoak” bildumaren ekoizpen digitala, Antso Jakituna Fundazioaren funts digitalizatuak,edo Eusko Ikaskuntzaren eta haren Euskomedia Fundazioaren eskaintza, *Auñamendi* entziklopedia, El-SEV-en funtsak, argazki-artxiboa, musika-artxiboa, *Euskonews & Media* aldizkaria, Eibarko Udalaren Liburutegi Digitala, HIRU Trebakuntza Iraunkorreko Ataria –hizkuntz ikastaroak eta euskaratutako material didaktikoak dauzka--, BADATOR datu-basea –ez da agertzen Google edo Yahoo bilatzaileetan adibidez–...

- Harreman estua dado (mendekotasun- edo bultzatze-harreman bat) ikus-entzunezko industriekin adibidez, eta irudiak eta soinuak balio-plus garrantzitsu bat sortzen dute hor. Ikus-entzunezko industriak euskarri eta sare berriak eskuratzen ditu bere produktuak hedatzeko.
- Euskararen berezitasunak munduko gainerakoak ez bezalako garapen teknologiko bereziak sor ditzake, eta horiek hizkuntza arrotzei aplikatzeko modukoak izan daitezke, eta oraingo emaitzak hobe ditzakete.

Banaketa/Hedapena

- Internetek dituen ezaugarriei esker, produktuak –multimedia-produktuak izan edo ez– hedatzeak nazioarteko izaera izan dezake.
- Irakaskuntza publiko ez-unibertsitarioko irakasle guztiek dute Interneteko sarbidea, posta-kontuen eta Berrikuntzaren zerbitzariaren bidez.

Eskariak eta merkatuak

- Bada kultur merkatu digital bat Euskadin, eta ari dira jadanik horretarako lehen urratsak egiten (Durangoko azokaren kasua).
- Gazteria IKTBein ohituta egoteak etorkizuneko merkatua ziurtatzen du.
- Liburuaren kasuan, biztanleria gazteenak teknologia berrietara iristeko duen erraztasuna aldagai garrantzitsua da etorkizuneko edozein sektore-estrategia lantzeko orduan.

Erakunde-politika

- Informazioaren Gizartearen, Kulturaren eta Ezagutzaren garrantziaren eta erronketako batzuen kontzientzia hartu behar da.
- Erakundeek ardura berezia izan behar dute digitalizazioaren abantailak denon eskura izan daitezen.
- Badira sinergiak ikus-entzunezkoarekin, zeina "estrategikotzat" baitauka Eusko Jaurlaritzak, eta bi hauetan ageri da hori: Ikus-entzunezko Sektorearen Liburu Zurian eta EITBko azpiegituretan eta ekipamenduetan inbertsioak egiteko dagoen plan publikoan.

Gizartea

- IKT Bak euskal etxeetan dezente sartuta daudenez, erabiltzailea erraz sar daiteke multimedia-edukietara eta beste mota batzuetakoetara, eta erabiltzaile horrek ezagutza eskuratzeko aukera handiagoak ditu.
- Egungo ekipamendua oinarritzat hartu behar da, kultura digitalean trebatze kolektibo bat egiteko, nahiz eta geure edukien existentziaren bizkar izan hori.
- Bada euskal komunitate "global" bat, bai Euskal Autonomia Erkidego barruan, bai kanpoan. Eduki kulturalak eskatzen ditu komunitate horrek, eta "kultura digitala" da, hain zuzen ere, distantzia geografikoak kentzeko era bat.

ABAGUNEAK

Trebakuntza

- Komunikazioarekin eta artearekin –bereziki ikus-entzunezkoarekin– lotutako Ikasketa Planak eta tituluak egokitu egin behar lirateke, hots, mundu digitalean eta multimedia-mundun behar diren gaitasun tekniko-sormenezkoetara zuzendu.
- Informazioaren Gizartearen garapenak eraldaketa dakar berekin, bai heziketa-ereduetan, bai heziketaren kontzeptuan, bai ezagutzara eta kulturara iristeko eran, etxetik bertatik egin baitaiteke dena orain, lehen aisiarako edo jostatzeko ziren orduetan.

Sorkuntza

- Eduki kulturala aurkezteko era berriak bilatzen uzten du, eta aurkezpen hori elkarrenergilea eta erabilerraza izango da erabiltzailearentzat.
- Industria kultural bakoitzak aplikazio berriak sortu ahal izango ditu, proiektzio-sistema berriak (errealitate birtuala, errealitate handitua, telebista digitala) eta elkarrekintza-era berriak baliatuta.
- Software libreak (Linux) –zeina apustutzat jo baitu Eusko Legebiltzarrak– dirua aurrezteko eta beste batzuekin harremanak izateko aukerak eskaintzen dizkio herri txiki bati.

Produkzioa

- Herri elebiduna gara. Oinarri profesional eta esperientzia sendoak ditugu, hizkuntzaren industrien/teknologiaren zenbait arlotan nazioarte-mailan lehiari aritzeko (aplikazioak, hiztegi elektronikoak etab.).
- Egun, testuan eta ahozko hizkuntzan oinarritzen dira eduki digitalak, eta, horregatik, hizkuntz edukia giltzarri da, zeren herri elebidun batean bizi baikara, bai heziketari dagokionez, bai ezagutza linguistikoei (edukien kudeaketa, ontologiak,

indexazioa etab.) dagokienez. Elebitasuna eta eleaniztasuna ditugu, bada, kanpoan herri txiki gisa lehiatzeko oinarria. Zertan lehiatu? Eduki kulturaletan eta hizkuntzaren industrien nahiz teknologien zenbait arlotan. Eta hori guztia, jakina, euskaraz eta beste hizkuntzetan.

- Industria kultural eta komunikabide guztien artxiiboak eta katalogoak digitalizatzea sustatu behar da era sistematikoan, etorkizunean eskaintzak ugaltzeko erabiltzaileei.
- Guztiz estrategikoa da Liburutegi Nazional digital eta birtual bat sortzea, egungo liburutegiak elkarrekin lotzeko. Liburutegi berri horrek, gainera, euskaraz formatu elektronikoa argitaratu den guztia bildu behar luke, euskararen "corpusa" osatzeko, beharrezkoa baita hori hizkuntzaren tratamendu automatikoan aurrera egiteko.
- Europar proiektuetan egon behar da, eta, horretarako, enpresek aholkularitza izango dute handik datozen deialdiak eta laguntzak kudeatzeko.
- Europar bada e-Content deritzan programa bat. Programa horrek helburu hau du: "eduki digitalen ekoizpenean, erabilera eta banaketan laguntzea eta sare globalen hizkuntz eta kultur aniztasuna sustatzea". Programa horrek sekulako aukera eskaintzen dio Kulturaren Euskal Planari, kultura digitalari dagokionez.
- Komunitate-sentimendua eta gizartean den elkarlanerako gogoia baliatu behar dira, eragileek (udalek, elkartek, banakoek, Eusko Ikaskuntzak, unibertsitateek...) lankidetzaproiektuak (auzolana) antola eta gauzatu ditzaten, eta banakoek parte hartu ahal izango dute proiektu horietan. Maiz, herrika, hirika (Bilbo, Donostia) edo are auzoka egoten da errotuta sentimendu hori. Wikipedia-ren ildoko proiektuak (ikus txostena) abiatu behar lirateke, gai lokalak edo espezifikoak ardatz hartuta. Sailak ezar ditzake ildo orokorrak, baina beste eragile batzuek (udalek, elkartek, Eusko Ikaskuntzak edo unibertsitateko eragileek) arduratu behar dute proiektuak gauzatzeaz.
- Multimediaren eta ikus-entzunezkoaren lotura horrek bi zatien baturak baino emaitza hobea ekarri behar du, eta balio erantsi berri batekin gainera.
- Fonogramen kasuan, euskarririk gabeko musika digitalaren merkatuak gero eta zati handiagoa izango du industrian, eta horrek, gainera, merkatu egingo ditu banaketa- eta ekoizpen-kostuak. Teknologia berriak –sarean eta handik kanpo— sekulako aukera dira, enpresaren tamaina edonolakoa izanda ere.
- Ikus-entzunezko ekoizpenaren kasuan, bi fenomeno hauek espero dira: "banda zabalerako" edukien eskaria haztea, batetik, eta irudiaren eta soinuaren ekoizpenean eta tratamenduan teknologia digital berriak erabiltzeak kostuak merkatzea, bestetik. Ez da ahaztu behar "prototipo-industria" bat dela eta antz handiagoa duela I+Garekin, fabrikazio- edo manufaktura-industria tradizionalarekin baino. Horrek ondokoak eskatzen ditu: kalitate-eskaeraren maila handi bat, arriskatzeko gaitasuna, sortzaileak bultzatzea, kontaktu- eta informazio-sareak ezartzea etab.

Banaketa/Hedapena

- Interneten laguntza baliatu behar da edozein arlotan (publizitatea, ebaluazioa, transferentzia, etab.) funts publikoekin egiten diren laguntza-deialdien gardentasuna ziurtatzeko.
- Orain dena hedatzeko edo ezagutarazteko, hedatze-kanpaina bat egin daiteke, ahal bada ikus-entzunezkoa. Edukiak nazioartean zabaltzeko, Interneten ipini behar dira, baina modu erakargarrian eta kalitate handiz; Eusko Jaurlaritzaren web guneak asko hobetu baitaitezke oro har.
- Liburuaren kasuan, saia gaitzen Internet ere erabiltzen euskal liburuak poesia barne- saltzeko (jadanik liburuen % 5 saltzen dira Internet bidez European).
- Cervantesvirtual.com-etik jabetza publikoko obra ugari jaitsi dira, eta, hori ikusirik, gauza bera egin daiteke jabetza publikoko euskal obrekin ere.
- Fonogramen kasuan, komunikabideen hobetzeak aukera handiak ematen ditu Internet gauzak hedatzeko erakusleihu berrizat hartu eta haren bidez edozein musika munduko kultura guztietara esportatzeko.
- Katalogoko funtsak CD formatuan berrargitaratzeko aukera dago, merkatu osagarri bat sortzeko, eta hortik hornituko litzateke bere fonoteka eguneratu nahi lukeen publiko heldua.

Eskariak eta merkatuak

- IKTBei esker, nahi beste informazio eskura daiteke, eta edonork nahiz edozein taldek –handia ala txikia izan– heda dezake gero informazio hori. Horregatik, balio handiagoa hartzen dute informazio-sare berriek, tresna estrategikoak baitira nazioartean Euskadiren eta euskararen presentzia indartzeko. Hori guztia, noski, gure herriaren ospe kulturala eta ezagutza zabaltzeko da.
- Kulturak zeharkako jarduera izan behar du, ekologiak bezala, eta, zenbat eta zeharkakoagoa izan, orduan eta garatzeko aukera gehiago izango da.
- Kultura diru publikoz laguntzen da, baina horren emaitzak ez dira izaten sarbide librekoak beti, baizik eta pribatuak (ordain truke bakarrik sar daiteke haietara, eta ezin da ekarpenik edo aldaketarik egin). Sor litezke beste eduki batzuk –horien eskubideak “copyleft” erakoak (sarbide librekoak) dira– laguntza espezifikoen edo horretarako araututako deialdien bidez, zerbitzu publikoko edo diruz lagundutako edukientzat bereziki, eta hori ez da bateraezina gainerako egoeretako, produktuetako eta zerbitzuetako Jabetza Intelektualen eskubideekin.
- Liburuaren kasuan, irakurtzeko ohituretan izan diren aldaketek eta teknologia nahiz ezagutza berrietara ireki den bideak beste jarduera-eremu bat sortu dute industria editorialarentzat.
- Diskoaren kasuan, katalogoko funtsak CD formatuan berrargitaratzea komeni da, merkatu osagarri bat osatzeko, hortik horni dadin gero bere fonoteka eguneratu nahi duen publiko heldua.

Erakunde-politika

- Koordinatu eta integratu egin behar dira erakunde eragileen ekintzak, batez ere ondare kulturala babesteko eta digitalki hedatzeko antolatu direnak. Erakundeen (Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak) arteko lankidetzak-aukera ederra dago hor, eta sinergietan eta hedapenean irabaziko da.
- Balia liteke ospe handiko jarduera baten abiatze estrategikoak lekarkeen aukera ere. Adibidez, Euskal Artxibo Nazionala sor liteke euskarri digitalean. Hor, beste erakunde batzuekin koordinatuta bil litezke funtsak. Gogoan izan behar lirateke une honetan martxan diren beste ekimen batzuk ere, sare gisa eratutako artxibo estatalak esaterako.
- VI. Esparru Programan definitutako jarduera-ildoak baliatu behar dira. Kultur erakundeei eskatu behar zaie har dezatela parte gogoz proiektuen —bereziki multimedien— garapenean, eta saia daitezela finantziarioa bilatzen EBko Kulturaren Zuzendaritza Nagusiaren programa espezifikoaren barruan.
- Administrazio Publikoak laguntza eman behar lioke sektoreari, eta, horretarako, merkatu- eta produktu-azterketak egin ditzake.

Gizartea

- Bai industria-tradizioa, bai jokabide praktikoa, bai maila kulturala, guztiak dira lagungarri kultura digitala aise heda dadin EAEn.
- Erabiltzailea subjektu aktiboa izan daiteke hemengo nahiz kanpoko kultur eta ondare-aberastasuna aurkitzen.
- Beste talde batzuk eratzen dira sarean, bizikidetzakoen paraleloan.
- Software librea oso osagai lagungarria litzateke euskarazko kultura digitalarentzat. Software hori baliatzeko, euskaratu egin behar litzateke aurrena, eta, gero, ezagutarazi eta eskoletan, erakundeetan, etxean eta abarretan erabili.
- Liburuaren kasuan, sektorean ICTBen erabilera sartzearen ondorioak berehalakoak izango dira, eta ondoko hauei eragingo diete: argitalpenari, irakurtzeko ohiturei, "ingeniaritza linguistikoari", euskarri elektronikoei, araututako eta arautu gabeko heziketa-ekintzei...

AHULEZIAK

I+G

- Oso bigarren mailako lekuan dago, tamalez, eremu kulturei edo gizarte erabilera errealei buruzko edukien ikerketa, nahiz eta ikerketa hori bateragarria den ikerketa teknologikoarekin edo aplikatuarekin.
- Ez dago inolako Gizarte eta Giza Ikerketa Planik Europa hegoaldeko herrietan, ez eta noski EAEn ere. Ez da hori gertatzen Europa erdialdean eta iparraldean.
- Garapen mugatua dute euskal ekoizpen musikal berriak hedatzeko behar liratekeen eta diskoaren edo CDaren alternatiba izan litezkeen teknologia berriek.

- Ez da nahikoa pizgarri eskaintzen ikus-entzunezko proiektu eta formatu berrietan ikerketa eta garapena (I+G) egiteko.

Trebakuntza

- Hezkuntza-sistemak ez du prestatzen edukiak sortzeko.
- Euskara Internet bidez urrundik ikasteko egungo eskaintza ez da nahikoa, eta, gainera, ez dago inongo loturarik erakundeek (Eusko Ikaskuntza, EHU, Mondragon Unibertsitatea, etab.) eskaintzen dituzten era horretako ikastaroen artean, eta ez da inolako planik ere etorkizunean lana antolatzeko.

Sorkuntza

- Multimedia-sektoreak ez du estatus espezifikorik berez; entzunezkoa, ikusizkoa, teknologia, elkarrekintza erraztuko duen araudi espezifikoa, etab. nahasten dira hor.
- Egiletza eta egilearen eskubide moralak eta ekonomikoak gutxieteko joera dago, oso erraza baita autotestuak eskegitzea, eta editoreak ere gero eta garrantzi handiagoa baitu haiek bistartzeko.
- Kultur industria bat identifikatu behar da, aplikazio berritzaileak sortuko dituen, proiektzio-sistema berriak (Errealitate Birtuala, Errealitate Handitua, Telebista Digitala) eta elkarrekintza-forma berriak barne.
- Egun martxan diren proiektuetan, oso bakanak dira jakintza-arlo askotako adituz osatutako taldeak, hau da, historialariz, arkeologoz, kontatzaile/eduki-sortzailez eta agente teknologikoz osatutako taldeak.
- Ezjakintasun handia dago teknologia berrien erabilerari dagokionez, bai ikus-entzunezko edukiak sortzeko, bai sortutako edukien euskarriztat erabiltzen diren formatu desberdinak erabiltzeko.

Produkzioa

- Estatu mailan, ezpigarapen izugarria dago eduki eta zerbitzu kultural digitaletan, eta azpigarapen handia dago, halaber, kablearen eta [LTDaren](#) sare digitaletan, eta horien biek batera zaildu egiten dute Informazioaren Gizartera benetan igarotzea.
- Oso "integrazio" eskasa dago egungo edukien mailan, eta integrazio hobe batek edukiak hobeto hedatzen lagunduko luke.
- Multimedia-enpresak enpresa txiki edo ertainak (ETE) dira, eta gabezia komertzial eta egiturazko handiak dituzte.
- Kopuruari kalitateari baino gehiago begiratzea. Oreakarik eza gertatzen da multimedia-ekoizpen kulturalean eta haren eduki kulturalean.
- Euskal kultur agente frankok ez dute aliantza estrategikorik egin nahi izaten proiektuak elkarrekin garatzeko.
- EAEn ez da sektorearen egoera neurtzeko adierazle onik. Zail da jakiten zenbat multimedia-industria kultural dauden, zertan ari diren, noiztik, zenbateko negozio-bolumena duten, etab.
- Ez dago inongo adierazlerik edo ikerketarik ere, kultur eragile batzuk egiten ari diren aplikazio pilotuen eragina era metodologikoan aztertzeko.
- Oraindik ere gabezia handiak daude euskarazko softwarea sortzean. Gabezia handiak daude, halaber, euskaraz eta formatu elektronikoen argitaratutako artxiboen edo bildumen alorrean.
- Euskarazko corpusaren tamaina txikia. Sareak egun testuei ematen dien lehenetsunak oso atzeratuta harrapatu du euskara, beste hizkuntza indartsuago eta lehenago normalizatutako batzuen aldean, kontuan izan behar baita idatzizkoa dela sareko hizkuntza nagusia.
- Multimedia-produktu gutxi sortzen dira euskaraz, edo euskal kulturari buruz.
- Liburuaren kasuan, ez dago sareko lan editorialik, salbu zuzenean sarera iraulitakoak.

Banaketa/hedapena

- Oso sen komertzial eskasa dago edukien eskaintzan.
- Modu eraginkorrean kudeatu behar da digitalizatutako informazioa, eta informazioa babesteko politikak behar dira. Egiteke dagoen lanik handienetako bat hau da: digitalizatutako bildumak estandarizatzea, multimedia-eragileek erabili ahal izan ditzaten, aplikazioa edozein izanda ere. Horretarako, "kudeaketagune" bat behar da, informazio digitalizatu eta estandarizatu hori guztia kudeatzeko.

- Interneten produktu bat ipintzeak ez du esan nahi produktu hori jadanik nazioartekoa denik. Zail da produktu hori ezagutaraztea, sarean dauden milioika orrien eta produktuen artean. Erakusleihen onak da Internet, baina horrek ez du esan nahi beti gure produktua ikusiko denik.
- Internet musika dohainik jaisteko erabiltzeak sekulako krisia ekarri dio sektore fonografikoari.
- Ez dakigu oraindik IKTB ikus-entzunezko industriaren prozesuetan modu integralean aplikatzen, eta hori oztopo handi bat da geure ikus-entzunezko produktuak banatzeko eta erakusteko sortzen ari den aukera baliatzeko.

Eskariak eta kontsumoak

- Eduki kulturalak –publikoak nahiz pribatuak— era atsegina eta erakargarria transmititu behar dira. Espazio eta jabetza publikoari eta P2P harremanei kalterik egin gabe, garbi ikusten da merkatua eta harkdakartzan itzulkin ukigarri eta ukiezinak oso gutxi egokitu direla Internetera.
- Merkatu librekoa ez da nahikoa multimedia-produkzio kulturala bizkortzeko eta, beraz, industria sortzeko.
- Internetetikiko jarrera oso heterogeneoa eta hautespenik gabekoa da. Erabiltzaileek oraindik ez dute jarraitzen bilatu/konparatu/erosi prozesu klasikoak.
- Euskadi ez da nabarmentzen Interneten erabilera handiagatik. Konekta Zaituz eta antzeko programei esker sortutako igoera handia gorabehera, sarea erabiltzearen kultura apala da oraindik.

Erakunde-politika

- Erakundeek sareak, azpiegiturak, teknologiak, plataformak eta tresnak bakarrik hobesten dituzte, edukien, aplikazioen eta erabilera errealean kaltetan. Oro har jokatzeko dute horrela, baina batez ere kulturaren arloan. Horrek estrategiarik eza ageri du, eta arriskutsua da hori kultura gutxitu batentzat; arriskutsua da, halaber, balio ez-materialen inguruan haziko den etorkizun handiko sektore batentzat.
- EIGPearen zenbait ekimen proposatzen dira. Horietan, ez da eredurik ez eta lehenetsirik ere edukien eta gizarte-erabileren eremuan (ez dira ezagutzen gure erabiltzaile-soslaiak), baina bai itzulpen automatikoarenean eta softwarea euskaratzearenean.
- Industria Sailak gogotik laguntzen die I+G+Bri, teknologiari, enpresa-sareari eta zenbait aplikaziori, baina ez produktu askori. Espainiako Gobernu I+G edukiei laguntzen die, eta nazioartera hedatzen ere laguntzen du Eureka edo Iberoreka programen bitartez, baina ez du laguntzen ez produktuetan, ez enpresak sendotzen.

- Euskadi Informazioaren Gizartean Planak (EIGP) ez die ematen laguntza sendoa multimedia-industria kulturaleri, eta, beraz, industria horiek behartuta daude beren jarduerak eta multimedia ez diren beste batzuk aldizkatzera.
- Erakunde publikoek ez dute sektore hau indartzeko eta dinamizatzeko inongo planik. Diru-laguntzak eta enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak ematen dituzte soilik, baina ez dituzte kontuan, ez egungo egoera, ez eta multimedia-sektorearen benetako premiak ere. Eta multimedia-sektoreko enpresak, egituraren eta langile batzuen gastuak aipatu diru-laguntzez ordainduta, arrakasta lortzeko aukera gutxirekin heltzen dira merkatura.
- Diru-laguntzak, batzuetan, ez dira batere egokiak. Batzuetan, diru-laguntzak diren bezalakoak direlako, produktua amortizaturik gelditzen da salgai ipini aurretik, eta, horregatik, maiz, egileak hura merkaturatzeko ahalegin txikia egiten du gero. Euskararen kasuan, argitaratutako produktu guztiak ez dira salgarriak (CD stock ugari dago saldu ezinik).
- Erakundeen arteko koordinazioa oso eskasa da, eta, maiz, ez dago garbi zer dagokion zeini.
- Jabetza Intelektualaren Legea ez da nahikoa edukiak eta erabiltzaileak babesteko.

Gizartea

- Gizarteak joera handiagoa du tresnerietara, aplikazioetara eta gaitasunetara jotzeko, kultura digitalaren edukietara jotzeko baino.
- Ez zaie gizarte-premien eta erabiltzailearen ezaugarrien aldetik heldu IKTBei, eta era homogeneizatzailean eta beragana egokitu gabe tratatu dute erabiltzaile hori.
- Teknologia berrien erabilera eta baliatze nahiko apalak detektatzen dira, eta gizarte-sektore berrien sareranzko joera hazkorra ere mantsotu egin da.

MEHATXUAK

Trebakuntza

- Eskola-sistemari lotura digitala emateko aurreikusitako planak ez datoz bat Estatuan diren multimediako heziketa-eduki urriekin.
- Ezjakintasun handia dago teknologia berrien erabilerari dagokionez, bai ikus-entzunezko edukiak sortzeko, bai sortutako edukien euskarritzat erabiltzen diren formatu desberdinak erabiltzeko.

Sorkuntza

- Maiz, aplikazio teknologikoegiak sortzeko arriskua dago, aplikazio horien zorroztasun zientifikoa (historikoa edo ondarezkoa) ahaztuta.
- IKTbak eduki-hornitzaileen zerbitzurako tresnak dira soil-soilik. Multimedia-eragileek sekula ez dute hartu behar eduki-sortzaileen paperik.
- Pirateria eta Internet dira disko-sektorearen mehatxu nagusiak. Horregatik, sektore horretako egungo enpresek beren prozesu osoa egokitu behar dute, eta, zehazkiago, produktu diskografikoaren balio-katea.

Produkzioa

- Egun, ez da bertoko eduki kultural erakargarri eta erabilerrazik, edo ez dira modu egokian hedatu eta ezagutarazi. Egoera horretan, baliteke gure internauta gazteek eta ez hain gazteek beste kultura batzuen edukietara jotzea, bertokoarekiko interesa galdurik.
- Produkzio digitalean egin den “orok balio du” politikak jaitsi egiten du produktuen kalitatea; ez dira aprobetxatzen baliabidearen ahalmenak; testu-kultura bakarrik errazten du, eta ez dira sortzen lengoaia berriak, eskura dauzkagun bitartekoez. Orain, ia guztiak ados daude: “hobe gauza gutxi egitea, baina kalitatezkoak”.
- Jokalekua aldatzen ari da. Ez hainbeste balio-katearen faseen desagertzean, baizik eta joko-arauen aldatzean, eta horrek negozio- eta hurbiltze-modeloen egokitze bat galdegiten du.
- *Puntucom* enpresak bertikalki hasi dira dibertsifikatzen, eta horrek eremu gero eta estuago eta lehia gogorragokoa dakar multimedia-enpresentzat.
- Ez da desiragarria kulturarentzako eta euskararentzako giltzarri diren eduki eta tresna digitalak jabetza pribatukoak izatea praktikan, bereziki, bultzada eta diru publikoaren bidez sortuak badira.

Banaketa/sustapena/hedapena

- Liburuaren kasuan, kostu handia dago teknologia –ekipamendu, lotura eta tresna--erosteko inbertsioetan, eta horrek mugak sortzen ditu edukientzako aurrekontuan.
- Fonogramaren kasuan, pirateria, P2P artxiboen trukea eta kopia pribatua mehatxu handi bilakatu dira mundu osoan.
- Eragin globalizatzaileak munduko merkatu guztiak hartzen ditu barne, eta komunikabide handietan modu gogorrean sustatutako produktu gutxi batzuk saltzen dira gehien.

Eskariak eta merkatuak

- Nahiz eta asko erabili sarea eta eduki anitz egon han, merkatu pagatzaile eskasa dago edukien ekoizpenarentzat oraingoz, erakunde publikoek egiten dituzten eskarietan salbu.
- Herri batzuetan (Danimarkan eta), ingelesezko edukietara sartzen da nagusiki jendea, eta hori mehatxu handia da hizkuntza gutxituentzat. Horregatik, eremu digitalean diskriminazio positiboa egin behar da euskararen alde.
- Interneten erabiltzaileen kopurua beti goraka doan arren, erabilerak gelditzera egin du, eta, orain, nabigatu ordez, web gune jakinetara sartzen da jendea gehienbat.
- Musika dohainik delako ideia zabaldu da gazteen artean, eta horrek pirateriaren gorakada ekarri du, batez ere kopia pribatuarena (baita euskal produktuetan ere). Horren ondorioz, publiko gazteenak (hamabost-hogei urte) gero eta musika gehiago kontsumitzen du, nahiz eta disko gutxiago (eta, zehazki, euskal disko gutxiago) erosi.

Erakunde-politika

- Kultura ez da aldagai estrategikotzat hartu EIGPean. Horrek eta Euskadiren tamainak arriskuan ipintzen dute bertan presentzia eraginkorra izatea. EIGP alderdi teknologikoetara eta informatikoetara zuzendurik dago batik bat, eta ez eduki kulturaletara, euskarari dagozkion gomendioak salbu.
- Eduki digitaletara libreki sartzeko (“copyleft”) eta haiek libreki erabiltzeko nahiz aldatzeko balizko legegintza-urratsak ondorio garrantzitsuak lituzke gertaera kultural digitalaren eta industriaren irauteko gaitasunean. Kontua hauxe da: nola babestu aldi berean edukien izaera eta horietara sartzeko eskubidea?

Gizartea

- Kultura Digitalaren edukietara sartzeko orduan, gizartearen zati handi baten trebakuntza digital mugatua da mehatxu nagusietako bat, eta horrek eten digitalaren arriskua dakar berekin; belaunaldien artekoa, batez ere.
- Pagatze-kultura indibidualizatu, ez-sozializatzaile, bereizle eta pribatibo bat ezartzea da beste mehatxu handia, Ongizate Gizartearen abantailak hondatuko lituzke eta.
- Eten digitalari, gainera, kultur kolonizazioaren eragina gehitzen zaio. Gehiago sustatutako eta garatzeko nahiz zabaltzeko ahalmen handiagoa duten kulturek egiten dute kolonizazio hori. Hau da, beren buruaz informaziorik ematen ez duten gizarteak informazio hori aurrez ematen duten gizartearen informazio-bolumen handien azpian itoko dira.

- Multimedia, jakina, adierazkor eta liluragarri izateko erabil daiteke, asmamen eskasaren ordainetan.
- Liburuaren kasuan, IKTbak ez dira, gaur-gaurkoz, lagungarri argitalpen-sektorearentzat, baizik eta mehatxu. Europako sektore industrialak berak (Frankfurt) berriro hausnartu du mundu digitalean daukan posizioa. Egin diren saioen ondoren, sarerako edizioak epe ertain batez itxaron beharko du gutxienez, euskal edizioaren kasuan.
- Liburuaren kasuan, sareak orrialde gutxiko irakurketetara gonbidatzen du, irakurketa labur eta idazkera lehorrekoetara. IKTben merkatuak, izan ere, gehiago dira zerbitzua emateko, dokumentatzeko, jostatzeko eta lan egiteko, liburutegi izateko baino; gehiago dira erabilera onuragarri eta mugaturako, erabilera iraunkorrerako baino.

CD+MMen JARDUERA-ILDOAK

1. Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak.

- Erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea komeni da, sinergiak lortzeko. Administrazioek lehenatasunak zehaztu behar dituzte; herriaren –eta hizkuntzaren-- premien arabera batzuetan eta Europako proiektuetan parte hartzeko beste batzuetan. Organo espezializatu eta misto bat sortu beharko da azkenean eremu digitalaren kudeaketa publikorako. Agian, Ordezkarri batek edo Idazkari espezializatu eta sail arteko batek hobeto azal litzake aro digitaleko aplikazio-arlo ugariak.
- Zerbitzu publiko kontzeptua atxiki behar da Aro Digitalean, gizarte osoa irits dadin aro horrek dakartzan abantaila sozialetara. Horretarako, tresna berriak sortuko dira edukietara sartzeko, adibidez atari publiko kulturalak. Euskal Kulturaren Atari bat sortu behar litzateke. Euskal irrati-telebista publikoak ere kanal anitzeko eta zerbitzu anitzeko estrategia sor lezake.
- Eduki hautatu batzuk eduki digitaletara aldatzen lagundu behar da. Prozedura batzuk ezarri behar dira editoreen, itzultzaileen, artxibozainen, dokumentazio-zentroen, informazio-zerbitzarien, erakundeen eta beste agente batzuen artean, materialen harremanerako.
- Sareko euskal kulturaren jarraipena egin behar da, etorkizuneko Kulturaren eta Komunikazioaren Behatokiaren –edo behatoki espezifikoko baten– esparruan.
- Sustapen-politika bikoitza egin behar da, geure aniztasun kulturalaren alde, Europako nahiz nazioarteko politiketan integratzeko.
- Politika kultural orokorraz gainera, politika zientifikoaren eta politika kulturalaren tarteko politika bat edo politika misto bat behar da: politika zientifiko-teknologiko kultural bat behar da EAEn.

- Oreka behar da ekintza publikoan. Merkatua sustatu behar da, baina saihestu egin behar da industria irreal bat, hots, enkarguetatik eta diru-laguntzetatik soilik bizi den industria bat, sortzea.
- Laguntzak ezarri behar dira, egun dauden edukiak multimediatik hedapen-sistema berrira egokitzeko, eta artxiboak, liburutegiak eta museoak sarera sartzeko, banda zabaleko banaketa-kanaletan integratuta.
- Ondare kulturala digitalizatzeko politika publikoak garatu behar dira, ondare horren kontrol nazionala ziurtatzeko, eremu digitalean pribatizatzeko-ahaleginak gertatzea saihesteko eta jabetza intelektualaren eskubideak babesteko.
- Ikus-entzunezko artxiboak –bereziki Euskadiko Filmmategian daudenak– digitalizatzeko laguntza espezifikoak sortu behar dira.

2. Gizartea

- Gizarte osoak eskuratu behar ditu Informazioaren Gizartearen (kulturaren, ezagutzaren eta informazioaren) abantaila sozialak, horretarako tresna berriak sortuta: atari publiko kultural bat, esate baterako.
- Trebatze kolektiboaren garrantzia nabarmendu behar da behin eta berriz, ekipamendua erosteko laguntzaren garrantzia baino gehiago.
- Multimedia egituratzeko hauek kontuan hartzea: gehienengoak erabiltzea, gizarte-hedapena, sarbide erabilerraza eta abar.
- Atal bat gorde behar da Kulturaren Euskal Behatokian multimediatik erabilera sozialentzat.

3. Enpresa-sarea

3.1. Baliabideak (trebakuntza, enplegua, lankidetzak...) indartzea.

- Tresnei buruzko trebakuntza behar da, baina baita edukiei eta jarrerari buruzkoa ere.
- Komunikazioarekin eta artearekin –bereziki ikus-entzunezkoarekin— lotutako Ikasketen Planak eta tituluak egokitu behar dira, eta mundu digitalean eta multimediatik behar diren gaitasun tekniko eta sormenezko berrietara zuzendu.
- Zein eredu garatu nahi den zehaztu behar da, Kultura Digitalaren sektoreari dagokionez: lehentasuna aisiari ematen diona (amerikarra), turismoari ematen diona (frantsesa) edo proiektuen mende dagoena (diru-laguntza).
- Digitalizazio-politikak beste helburu batzuk ere izan behar ditu: digitalizatutako informazioaren kudeaketa eraginkorra, informazioa babesteko politikak (ontologiak,

web semantikoak), egile-eskubideak babesteko sistemak (watermarking sistema bidimentsionalak) eta digitalizatutako piezak ikusteko eta berreraikitzeo tresna bakunak, ikerketa historiko eta ondarezkoa egiteko tresnatzat.

- Komunikazio-protokolo bat ezartzea bultzatzea, edukien harremanerako.
- Digitalizazio-estandarrek bateratzea, teknologia eskura edukitzeko; ondarearen gaineko balio erantsia sortzeko multimedia-ekintza; eleaniztasunaren inguruko multimedia-garapena eta hori erraztuko duten “egile-tresnak” sortzearen aldeko apustua dira, besteak beste, lan-ildo nagusietako batzuk.
- Digitalizatutako bildumak estandarizatu behar dira, multimedia-eragileek erabili ahal izan ditzaten, aplikazioa edozein izanda ere. Horretarako, informazio digitalizatu estandarizatu kudeatzeko Kudeaketagune edo Koordinaziogune bat beharko litzateke.
- Erabilera-testuinguruak indartu behar dira, eta erabiltzaile-soslaiak zehaztu.
- Multimedia-sektorea berritze- eta fokalizatzeko-fasean dago abantaila konparatiboak eduki ditzakeen produktu-sorta batzuetan. Abantaila horien adibideak: memoria-kultura eta nortasuna eta kultura berritzailea.
- Enpresen arteko eta sektore arteko lankidetzarako laguntza-programak ezarri behar dira. Eta lankidetzak horrek espezializazioa eta proiektu handietarako bidea erraztu behar lituzke.
- ETEak ingurune digital berrira egokitu daitezela lagundu behar da.
- Multimedia-eduki kulturalak banatzea erraztuko eta hobetuko duten azpiegiturak garatu behar dira.
- Prototipo eta aplikazio berriak gauzatzeko, sinergiak eta lantalde diziplina anitzetakoak sortu behar dira, eta proiektu horretarako behar diren espezialista guztiak integratuko dira lantalde horietan: sortzaileak, diseinatzaileak, gidoilariak, teknologoak, ebaluatzaileak, hezitzaileak eta banatzaileak.
- Aplikazio berritzaileek hauek barne hartu behar dituzte: proiektzio-sistema berriak (Errealitate Birtuala, Errealitate Handitua, Telebista Digitala) eta pertsonen eta konputagailuen elkarrekintza-forma berriak.
- Esperientzia pilotuak ingurune errealean gauzatu eta ebaluatu behar dira, eta, horregatik, garrantzitsua da kultur komunitatea prest egotea prototipo horientzako laborategi erreal izateko.
- Komeni liteke multimediar buruzko euskal jardunaldi batzuk antolatzea, sektorean ari diren eragile franko agertuko lirateke eta.

3.2 Inbertsioa/finantziak

- Politika industrialak, finantziariozkoak eta fiskalak erabili behar dira, sektorea lehentasunezkoztat eta berritzaileztat harturik.
- Tresna fiskal eta kredituzkoen bidez lagundu behar zaie ETE kulturei, mundu digitaleranzko igaraldia egin dezaten, eta multimedia-sormena bultzatu behar da.
- Kultura digitalaren merkatu bat garatu behar da, edukidun ETE sektore bat eratzea errazteko.
- Kulturaren finantziario pribatua/partikularra sustatu behar da, pizgarri fiskalen, laguntzen eta abarren bidez

4. Enpresa-sarearen antolaketa

- Azterketa sakon baten beharra dago. Ez dugu adierazle on eta fidagarririk sektorearen egoera neurtzeko, eta zail da jakiten enpresen kopurua, jarduera, fakturazioa eta abar, jarduera-ildo eta -plan egokiak zehazteko.
- Adierazleak eta azterketak falta dira, kultur eragile batzuetan egiten ari diren aplikazio pilotuen eragina modu metodologikoan aztertzeko. Azterketa hori egingo balitz, nola komunitate artistikoak hala zientifikoak zenbait parametro lituzkete, bisitariarentzako esperientzia interesgarriak garatzeko.
- Atari kultural bat sortu behar litzateke Interneten. Izen argi baten pean, Euskadiri buruzko eduki kultural guztiak bildu behar lituzke, eta ahalik eta publiko gehienari eman behar lioke sartzeko aukera.
- Aliantza estrategikoak ezarri behar dira, guztien artean proiektuak garatzeko.
- Eragile guztiak (profesionalak, sozialak, industrialak, sindikalak) artikulatu eta koordinatu behar dira. Trebakuntza eman behar zaie, eta gai hauek irakatsi: ikerketa, argitalpenak eta lan-proposamenak, artea eta ondarea barne direla.
- TLKen Clusterraren eta multimediaren garapenen jarraipena egin.
- "Hizkuntzaren Industrietan" ari diren eragile guztiak antolatzeko estrategia bat sustatu behar litzateke, cluster baten antzeko egitura emanda, eta jarduera-ildo batzuk sortu behar lirateke, bai euskal erroko tresnen garapen teknologikoa ziurtatzeko, bai eragile kulturelek haiek erabiltzea ziurtatzeko.
- Atal espezifiko bat gorde behar da Kulturaren Euskal Behatokian, multimedia-industria kulturalentzat eta haien erabilera sozialentzat.
- Kultura digitaleko euskal agenteen katalogo bat sortzea.
- Euskal musikaren katalogoari (erreferentziak, autoreak, interpreteak, konpainiak...) buruzko datu-base oso bat eratzea komeni da.

- Guggenheim-en erakarpina baliatu behar da kulturaren sustapenean, Fundazio horrekin epe luzeko akordio bat eginda.

5. Produktu-irizpideak

- Geure produktuak sortzen lagundu behar dugu, eskaintzen diren gainerakoek adinako kalitatea (sormen artistikoa, egile-eskubideak ongi babestuta, eduki libre edo publikoak...) izan dezaten, eta horiek merkatuan sustatzen eta ezagutarazten ahalegindu behar da.
- Egungo edukiak multimediarren hedapen-sistema berrira egokitu behar dira, artxiboen, liburutegien eta museoen edukiak sarera eta banda zabaleko banaketa-kanaletara pasatuz.
- Hiru dimentsioko ingurune birtual erakargarriak sortu behar dira espazio kulturaletan, kultura eta tradizioa (zaharberritzea eta arkeologia, birsortzea...) herritarrei hurbiltzeko.
- Sormenezko multimedia-produkzioa akuilatu behar da.
- Errealitate birtualeko eta handituko tresnak erabili, artearen eta ondarearen gainean trebatzeko.
- Sareko euskara babesteko eta indartzeko ekintzak bultzatu behar dira, baina haren kalitatea bermatuta eta lehentasuna eduki eleanitzei (euskara + beste hizkuntza batzuk) emanda, neurri handiagoko merkatuetan egotea errazteko.
- Diskriminazio positiboa egin behar da, eta kalitatezko irizpideekin gainera, euskaraz dauden produktu kulturalentzat.

6. Balio-katearen eta kudeaketaren zenbait alderdi

6.1. Ikerketa eta Teknologia berriak

- Hizkuntzaren industriak garatu behar dira. Ingeniaritza linguistikoa bultzatu, arreta berezia eskainita itzulpen- eta lokalizazio-teknologiei eta eduki eleanitzak kudeatzeko eta argitaratzeko sistemen (Web-ak, liburu elektronikoak eta CD-ROMak) garapenei
- I+G kulturalean eragin behar da, Europako sareetan parte hartuz, eta administrazioak fiskalki lagundu behar du.
- Multimedia-eduki berrien I+Gari laguntzeko hainbat urtetarako planak egin behar dira, talentuari bultzada berezia emanik.
- I+G+B sustatu behar da, batez ere, eduki espezifikoak garatzeko tresnena.
- Musikaren kasuan, laguntza eman behar zaie euskal konpainien inbertsioei, Internet bidez heda eta komertzializa ditzaten beren errepertorioak eta produktuak.

Horrek digitalizatzeko-planak egitea eskatzen du, bai produkzioan, bai eta produktuak sarean edo sarearen bidez banatzeko eta hedatzeko bidean ere.

6.2. Sorkuntza

- Sormen artistikoa sustatu behar da formatuetan eta bitarteko elektronikoetan, eta pizgarri desberdinak sortu, hau da, sariak, laguntzak, edizio elektronikoak, etab., kultura digitalaren modalitate desberdinetara zuzenduak.
- Sortzaile-mota berriak dauden kontzientzia hartu behar da. Horietako batzuek inguruko enpresentzat egingo lukete lan, eta beste batzuk autonomoak lirateke eta urruneko bezeroentzat arituko lirateke, telelanaren bidez.
- Euskarri tradizionaletako eduki kulturalak era berri edo hobetutan egokitu edo aldatu behar dira euskarri multimedietara, betiere komunikazioaren eta kalitatearen bikaintasuna helburu izanik.
- Azter eta susta daitezela multimedia-hizkuntzaren bidez diskurtso kultural eta artistikoa eraikitzeke era berriak. Multimedian oinarritutako genero berriak (kazetaritzakoak, literarioak, plastikoak, etab.) bilatu behar dira.
- Baliabideak eleanitzak sortu behar dira.
- Soft librearen kontzeptuan edo eduki-lizentzia libreetan oinarritutako sortze-formak (teknologiko/software, edukizkoak) bultzatu behar dira.
- Ekintza espezifikoak bultzatu behar dira *net art* (ordenagailuz egindako eta ordenagailuz ikusteko artea) mailan. Pertsona horiek esperientzia komun batean integra daitezela lagundu behar da.
- Multimedia arte eszenikoetara sartu behar da.

6.3. Produkzioa

- Laguntza eta babesak eman behar zaie ikuspegi kultural eta heziketazkoa agertzen duten bideojokeen eta multimedia-produktuen sortzaileei.
- Liburuei, diskoei edo ikus-entzunezko grabaketei diru-laguntza emateko, haien kopia digitalizatu bana ekartzea jarri behar da baldintzat. Horrela, haiek artxibatzean, ez legoke analogikotik berriz digitalizatzen ibili beharrik, etorkizunean.
- Ondarea digitalizatzeko politikak garatu behar dira, haren kontrol kolektiboa bermatzeko eta hura pribatizatzeko saioak saihesteko.
- Lotura eta lankidetzak iraunkorrak sustatu behar dira kulturaren munduko enpresen (sektore editoriala, fundazio artistikoak, etab.) eta multimedia-enpresen artean.
- Lankidetzak sustatu behar da, halaber, tresna-garatazaileen, irtenbide-egintzaileen eta eduki-irratzaileen artean.

6.4. Komertzializazioa/sustapena

- Hemengo produkzioa erakusteko beharra. Sustapenaren garrantzia.
- Egile-eskubideen pirateria arautu eta kontrolatu behar da sare berrietan, sektoreak duen etorkizun handiari horrek egiten dion kaltea saihesteko.

6.5 Hedapena

- Eduki kultural digitalen kontsumo-merkatuari buruzko ikerketa bat egin behar da, sektoreka eta produktuka. Europako eta nazioarteko beste herri batzuekin ere konparatu behar litzateke ikerketa hori.
- Eusko Jaurlaritzaren Plana, teknologiak eta eduki kulturalak transferitzeko/internazionalizatzeko, Euskadi Institutuaren eta beste batzuen esparruan.
- Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak formatu digitalean argitaratu behar dira.
- Lege-gordailuetan formatu digitaleko ale bana entregatzea bultzatu behar litzateke, eta "lege-gordailu digitala" definitu.
- Orobat egunkariekin.
- Kontsumo digital zentzuzko eta interesgarria bultzatuko duten estrategiak sortu behar dira.

6.6. Kudeaketa-eredua hobetzea

- Enpresa-mintegien ereduaren egokitasuna.
- Argazki-edizioaren kasuan, aholkularitza orokorra eta egiturazko laguntza jasotzeko aukera eskaini behar da gai hauetan: esportazioa, Internet bidezko salmenta, teknologia berriak... norberaren errepertorioa babesteko neurriak sustatu behar dira gainera.

7. Merkatuaren dinamizazioa eta nazioartera zabaltzea

- Eduki eta zerbitzu kultural digitalak kanpoan proiektatzea, eta lankidetzak horizontala erraztea beste autonomia-erkidego batzuekin eta Iberoamerikarekin.
- Kalitatezko produktu kulturalen euskal marka bat garatzea.
- Merkatu kilikagarri bat edukitzea erabiltzailearentzat (sareak, kapilaritatea, prezio irigarriak, *hard-a* eta "denentzako" trebakuntza, sarbide "librea" edukietara etab.).
- Kultur proiektzioa indartu EBrantz (e-Content bezalako Europako programak baliatzeko), Iberoamerikarantz eta AEB-Kanadarantz.

- Multimediako *label* kultural bat sortzea.

JARDUERA-ILDO NAGUSI BAINA OROKORRAK

1) Ekimen publikoen koordinazioa, gardentasuna eta normalizazioa ziurtatzea maila guztietan

- Erakunde arteko koordinazioa bultzatu behar da, Eusko Jaurlaritzako Sailen artean (Kanpo Ekintza, Mendikoi nekazaritza-ataria, Hezkuntza, Turismoa...), sinergiak lortzeko eta ahaleginak errepikatzea saihesteko
- Ikerketari eta garapenari laguntzeko hainbat urtetarako planak eratu behar dira, enpresa eta sektore arteko lankidetzarako.
- Sareko Euskal Liburutegi Nazional elektronikoa hauek guztiak eskaini behar lituzke: gaur egungo edukiak, *copyright*-a galdu duten funts zaharrak eta baimendutako beste batzuk. Gainera, berak leukake azken horiek erreproduzitzeko eskubidea. Liburutegi hori multimedia-liburutegia edo multimodala litzateke, eta, beraz, "liburu" kontzeptua motz gertatzen zaio kulturarekin lotutako testu-, irudi- eta soinu-baseak jasoko eta hedatuko lituzkeen tresna horri. Euskal Liburutegi Nazionala ez litzateke eratu behar biltegi zentralizatu edo gauzaki inprimatuak edukitzeko eraikin bat bezala, baizik eta elkarrekin lotutako zentro batzuen sare gisa edo funts partekatu batzuen komunitate gisa. Funts horiek banaturik leudeke, eta sarearen bidez sartuko litzateke haietara, eta prozedura estandarrak ezarriko lirateke materialen trukerako.
- Beste liburutegi batzuekin koordinatu behar da, Euskadiri buruzko artxiboak bidaltzeko eta hartzeko nahiz emateko.
- "Lege-gordailu digitala" definitu behar da, gehiago artxibo-funtziorako (euskarazko testuaren megacorpora, adibidez), liburutegi-funtziorako baino... Gauzak artxibatzen, biltzen eta ordenatzen hasi behar da, bada materialik eta. Jendea, berriz, etorriko da noizbait.
- Estandar publikoak eta metahizkuntzak, formatuak eta kode irekiak sustatu behar dira.
- Komunikazio-protokolo bat ezartzea sustatu behar da, edukien trukerako, bai eragile sortzailerentzat, bai eduki horien kontsumitzaileentzat. Horrela, erraztu egingo da baliabide partekatuak sortzea eta berorietara sartzea. Hona hemen baliabide partekatu batzuk: itzulpen-memoriak, glosarioak, datu terminologikoen baseak, nomenklaturak, toponimia, onomastika, datu lexikografikoen baseak... Itzulpen-teknologiek mota horretako irtenbideak eskatzen dituzte.
- Bilaketa Ataria sortu, hainbat erakundetan dagoen informazio guztirako (liburuak, musika, irudiak, etab.) sARBIDE-plataforma ikusezintzat.

- Banaketa errazteko eta hobetzeko azpiegiturak garatzea.
- I+G+B sustatzea, batez ere tresnen mailan.

2) Teknologia eleanitz bat sortu behar da, euskaratik abiatuta, gure gizartearen premiak asetzeko, eta beste gizarte batzuenak ere bai, esportazioaren bidez

- Hizkuntzaren industriak garatu behar dira. Euskararentzat sortuz, hizkuntzaren teknologiak sortzen ditugu, onuragarriak geure hizkuntzarentzat eta berdin testuinguru global eleanitz batentzat. Euskarari zuzendutako baliabideak (corpusak, hiztegiak, prozesadore linguistikoak) sortzeaz gainera, beste hizkuntza batzuentzat ere sortu behar dira paraleloki. Ahal den heinean, sortu beharreko baliabideek bertsio linguistiko guztiak edo gehienak eduki behar lituzkete; bestela, itzulpeneskaria handituko litzateke geroago. Ebidentzia horrek sendotu egiten du itzulpen- eta lokalizazio-teknologiek Euskadin duten balio estrategikoa. Horrekin, euskararen normalizazioari lagunduko zaio (lexiko, terminologia, gramatika eta estilo mailan), eta, bestalde, hizkuntz erregistro berriak sustatuko dira, eta praktika onak, idazketan eta itzulpenean.
- Ingeniaritza linguistikoa bultzatu behar da, hauei arreta berezia eskainita: itzulpen- eta lokalizazio-teknologiei eta **eduki** eleanitzen (web-ak, liburu elektronikoak eta CD ROMak) kudeaketa- eta argitaratze-sistemen garapenari
- Euskara eta teknologia eleanitzak bultzatu behar dira. **Euskara** bultzatu behar da orain arte hiztegien, on line irakaskuntza-metodoen, euskarazko tresna informatikoen eta abarren mailan egindakotik abiaturik. Biltegiak erabili behar dira, halaber, euskarara egin beharreko itzulpenentzat Corpusak sortzeko.

3) Kalitatezko edukiak sor daitezzen bultzatu behar da euskal kulturaren arlo guztietan (ondarea, artea eta kultur industria)

- Diskriminazio positiboa egin behar da euskarazko produktu kulturalen alde, eta kalitate-irizpidez gainera.
- Kalitatezko euskal produktu kulturalen marka bat sortu behar da.
- Soft librearen kontzeptuan edo eduki-lizentzia libreetan oinarritutako sortze-formak (teknologiko/software, edukizkoak) bultzatu behar dira.
- E-kultura enpresei lehentasunezko tratamendu eskaini behar zaie.
- Kultura digitalaren merkatu bat garatu behar da, edukidun ETE sektore bat eratzea errazteko, eta mundu digitalera igarotzen lagundu ETE horiei, tresna fiskalen eta kredituzkoren bidez.
- Ondare kulturala digitalizatzeko politika publikoak garatu behar dira, eta, horrekin batera, digitalizatutako informazioa modu eraginkorrean kudeatu eta informazioa babesteko politikak sortu behar dira.

- Laguntzak ezarri behar dira, eduki kulturalak egokitzeko nahiz interpretatzeko era berriak eta hobetuak sortzeko, eta egun dauden edukiak egokitu, halaber.
- Enpresen arteko harreman eta lankidetzak iraunkorra sustatu behar da, eta tresnen eta sortzaileen arteko lankidetzak bultzatu behar da prototipo eta aplikazio berriak egiteko.
- Kulturaren finantziak pribatua/partikularra sustatu behar da, pizgarri fiskalen, laguntzen eta abarren bidez

4) Euskal kultura (edukiak eta zerbitzuak) sarearen bidez hedatzeko plataforma banatu indartsu bat sortzeko bidea jarri behar da

- Eduki kultural digitalen kontsumo-merkatua ikertu behar da sektoreka eta produktuka. Europako eta nazioarteko beste herri batzuekin ere konparatu behar litzateke ikerketa hori. Plataformarekin batera, “giro egoki” bat eduki behar da erabiltzailearentzat (sareak, kapilaritatea, prezio irisgarriak, *hard-a* eta “denentzako” trebakuntza, sarbide “librea” edukietara, etab.).
- Eusko Jaurlaritzaren Plana, teknologiak eta eduki kulturalak transferitzeko/internazionalizatzeko, Euskadi Institutuaren eta beste batzuen esparruan.
- I+G kulturean eragin, europar sareetan parte hartuz.
- Ataria ez ezik, komeni litzateke kultura digitalaren euskal eragileen katalogo bat ere sortzea.
- Sareko euskal kulturaren jarraipena egin behar da, etorkizuneko Kulturaren eta Komunikazioaren Behatokiaren –edo behatoki espezifiko baten– esparruan.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDO ESPEZIFIKOENAK

1. Ekimen publikoen koordinazioa, gardentasuna eta normalizazioa ziurtatu behar dira maila guztietan

- Erakunde arteko koordinazioa bultzatu behar da Eusko Jaurlaritzako Sailen artean, sinergiak lortzeko eta ahaleginak errepikatzea saihesteko
- Ikerketari eta garapenari laguntzeko hainbat urtetako planak eratu behar dira, enpresen eta sektoreen arteko lankidetzarako.
- Sareko Euskal Liburutegi Nazional elektronikoak hauek guztiak eskaini behar lituzke: gaur egungo edukiak, *copyright*-a galdu duten funts zaharrak eta baimendutako beste batzuk. Gainera, berak leukake azken horiek erreproduzitzeko eskubidea. Liburutegi hori multimedia-liburutegia edo multimodala litzateke, elkarrekin lotutako zentro batzuen sarea, funts partekatu batzuen komunitate gisakoa. Funts horiek banaturik leudeke, eta sarearen bidez sartuko litzateke haietara.
- Ataria sortu behar da, hainbat erakundetean dagoen informazio guztirako (liburuak, musika, irudiak, etab.), sarbide-plataforma ikusezintzat.
- Banaketa errazteko eta hobetzeko azpiegiturak garatu behar dira.

2. Teknologia eleanitz bat sortu behar da, euskaratik abiatuta, gure gizartearen premiak asetzeko, eta beste gizarte batzuenak ere bai, esportazioaren bidez

Hizkuntzaren industriak garatu behar dira. Onuragarriak izango dira gure hizkuntzarentzat, eta berdin testuinguru global eleanitz batentzat. Euskarari zuzendutako baliabideak (corpusak, hiztegiak, prozesadore linguistikoak) sortzeaz gainera, beste hizkuntza batzuentzat ere sortu behar dira paraleloki. Ingeniaritza linguistikoa bultzatu behar da, arreta berezia eskainita itzulpen- eta lokalizazio-teknologiei, eta arreta berezia, halaber, eduki eleanitzen (web-ak, liburu elektronikoak eta CD ROMak) kudeaketa- eta argitaratze-sistemen garapenari. Euskara bultzatu behar da, orain arte hiztegien, on line irakaskuntza-metodoen, euskarazko tresna informatikoen eta abarren mailan egindakotik abiatuta. Biltegiak erabili behar dira, halaber, euskarara egin beharreko itzulpenentzat Corpusak sortzeko.

3. Kalitatezko edukiak sor daitezen bultzatu behar da euskal kulturaren arlo guztietan (ondarea, artea eta kultur industria)

- Kalitatezko produktu kulturalen marka bat sortu behar da, eta euskaraz dauden produktu kulturalak diskriminatu positiboki. Horretarako, edukidun ETEen sektore bat eduki behar da, tresna fiskalen eta kredituzkoen bitartez.
- Laguntzak ezarri behar dira, eduki kulturalak egokitzeko nahiz interpretatzeko era berriak eta hobetuak sortzeko, eta egungo edukiak egokitu, halaber.
- Ondare kulturala digitalizatzeko politika publikoak garatu behar dira, eta, horrekin batera, digitalizatutako informazioa modu eraginkorrean kudeatu eta informazioa babesteko politikak sortu.
- Enpresen arteko harreman eta lankidetzak iraunkorra sustatu behar da, tresna-sortzaileen arteko lankidetzak bultzatuta prototipo eta aplikazio berriak egiteko.
- Soft librearen kontzeptuan edo eduki-lizentzia libreetan oinarritutako sortze-formak (teknologiko/softwareak, edukizkoak) bultzatu behar dira.

4. Euskal kultura (edukiak eta zerbitzuak) sarearen bidez hedatzeko plataforma banatu indartsu bat sortu behar da

- Kultur Atariaz gainera, ikerketa bat egin behar da eduki kultural digitalen kontsumo-merkatuaz, sektoreka eta produktuka.
- Eusko Jaurlaritzaren Plan bat garatu behar da, kulturarekin lotutako teknologiak eta edukiak hirugarren herrietara transferitzeko/nazioartekotzeko, Euskadi Institutuaren eta beste batzuen esparruan.
- Sareko euskal kulturaren jarraipena egin behar da, etorkizuneko Kulturaren eta Komunikazioaren Behatokiaren nahiz behatoki espezifiko baten esparruan.